

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BAROJA-ZUMENTUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak eta onura publikoko mendia lagatzea Baroja, Lotza eta Zumentu herrietako ehiza esparrua eratzeko

Baroja-Zumentuko eta Lotzako administrazio Batzarrek ehiza esparrua (matrikula: VI-10098) berritzea erabaki dute. Ehiza esparruaren titularra Baroja-Zumentuko Administrazio Batzarra da, jabe taldearen ordezkarietan.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun baliouduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

- Onura Publikoko Mendiak, 190 zk., DEHESA, Baroja-Zumentuko Kontzejuaren jabetzakoa
- Onura Publikoko Mendiak, 193 zk., DEHESA, Baroja-Zumentuko Kontzejuaren jabetzakoa
- Onura Publikoko Mendiak, 186 zk., CARRASCAL, Lotzako Kontzejuaren jabetzakoa
- Onura Publikoko Mendiak, 202 zk., OLAGURRIA, Lotzako Kontzejuaren jabetzakoa
- Onura Publikoko Mendiak, 204 zk., RECOMENDIA, Lotzako Kontzejuaren jabetzakoa
- Onura Publikoko Mendiak, 205 zk., TURIZAR, Lotzako Kontzejuaren jabetzakoa

Onura publikoko mendi horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzejuan dago interesdunen esku.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Baroja, 2020ko ekainaren 24a

Lehendakaria

JOSÉ MIGUEL DURANA FERNÁNDEZ